

# **Etxean ere...mingainak dantzan!!**

**Etxealdiko eskolako lanetan ahozkoari  
lekua egiteko proposamenak**

*Ebete hizkuntza-zerbitzuak*

*2020ko martxoan*

Koronabirusa dela eta ikasleak etxetik lanean dihardute batean eta bestean. Eskola gehienetan zabaldu dira ikasleekin harremanetan jartzeko bideak eta baliabideak. Eta horren barruan ikasketa prozesua jarraitzeko lanak ere bideratu zaizkie.

Etxe askotan euskararen erabilerari lekua emateko zailtasunak izango dituzte eta ikasleentzat egoera honetan ere euskararen erabilerari eta ahozketasunari bidea zabaltzea garrantzitsua da.

Dokumentu honetan mintzamenari bide emateko jarduera batzuk jaso dira, erabili nahi badituzue aurrera eta hauetatik abiatuz zuenera egokitzeko baliagarriak badira ere primeran.

Mila esker eta animo!

*OHARRA: Eskolak ikasleei proposatutako baliabideen arabera jarduerak banaka, binaka edo taldeka egin ditzakegu. Guk egoera desberdinetarako irudikatu ditugu batzuk baina bakoitzak berera egokitzeko ez du arazorik izango. Hau da, binaka ezin badute egin baliabiderik ez dutelako, ekintza bera banaka ere proposatu dezakezue.*

## **Ahozketasuna banaka lantzeko.**

- **Instrukzio testuak:**
  - ESKOLAN GALDUTA!
  - NIRE MAHAI JOLAS GUSTUKOENA
  - GU ERE ETXEKO CHEFAK
- **Narrazio testuak**
  - NIRE EGUNEROKOA
  - ZER GERTATU DA?
  - ALBISTEAK
  - OSATU GELAKO LIBURUTEGIA
- **Deskripzio testuak**
  - EGIN NIRE MARRAZKI BERA
  - NOLAKOA DA ZURE ETXEA?

○ **Instrukzio testuak:**

- **ESKOLAN GALDUTA!** Naroa ikastetxeko komun bat konpontzera joan da gaur. Ikastetxeko goiko solairuko komun batean dago. Eskolako argi denak itzali dira eta ez du eskola ondo ezagutzen, gainera eskolan ez dago beste inor. Ezin du telefonorik hartu baina WhatsAppen audioak entzun ditzake. Nondik nora joan behar da Jon eskolatik irtetzeko? Joni laguntza emateko prest? Grabatu eta bidali audio bat Naroari nondik nora joan behar duen azalduz.
  
- **NIRE MAHAI JOLAS GUSTUKOENA.** Aukeratu etxeko zure mahai jolas gustuko bat eta azaldu zure lagunei jolas horretan nola jolasten den. Etxeko itxialdia bukatzean haiekin jolasteko aukera izango duzula kontuan izan eta saiatu ahalik eta ondoen azaltzen. Animo!
  - adibideak:
    - <https://www.youtube.com/watch?v=qNninUX2QSE&t=337s>
    - <https://www.youtube.com/watch?v=hgeQ8wysT6Y>
  
- **GU ERE ETXEKO CHEFAK!** Etxean sukaldean egiteko aukera paregabea dugu egun hauetan. Prestatuko duzu zerbait eta ikaskideei egin duzuna azaldu? Egin bideo txo bat eta bidali zure ikaskideek ikusteko. Makarroiak, arraina plantxan, bizkotxoa, ... Nahi duzuna egin dezakezu! Aurrera chefak!
  - Adibideak:
    - [https://www.youtube.com/watch?v=DF723EU-4\\_o](https://www.youtube.com/watch?v=DF723EU-4_o)
    - <https://www.youtube.com/watch?v=sr63z3JawHg>

Oharra: Sukaldaritza jaso da abidide moduan baina esperimentuak edo eskulanak ere izan daitezke.

○ **Narrazio testuak**

- **NIRE EGUNEROKOA:** Egunero edo astean bi aldiz etxean gertatutako xeblekeri edo gustura egin duzun zerbait kontatuko diguzu? Ziur zure ikaskideek poz pozik entzungo dituztela zure eguneroko gora beherak.
  
- **ZER GERTATU DA?** Irudiak begiratu eta irudi horietan agertzen dena kontuan izanda osatu zure istoriotxoa. Kontatuko diezu zure ikaskideei audio bat grabatuz? Nahi baduzu antzerki moduan ere prestatu dezakezu eta bideoan grabatu. ANIMO!



Story cubes online irudiak erabili dira baina nahi diren irudiak erabili daitezke. Txikientzat irudi gutxiagoko irudiekin egin dezakegu dinamika bera.

- **ALBISTEAK:** Koronabirusak etxean egotera eraman gaitu, egoera zaila dela ezin ukatu baina koronabirusak gauza on batzuk ere ekarri ditu gure egunerokora. Ausartuko zara Koronabirusaren inguruko albiste positibo bat audio batean grabatu irratiko esateri bat izango bazina bezala zure ikaskideei bidaltzen? ANIMO!
- **LABURPENA. OSATU GELAKO LIBURUTEGIA!** Gelako whatsapp taldean, norberak hartu gustuko duen liburu bat eta gomendatu lagunei irakur dezaten; horretarako liburu edo pelikularen laburpena egin eta animatu beste gelakideek ere bere liburua gomenda dezaten. Ahozko azalpena liburua eskuan dutela bideoz grabatu eta partekatu whatsapppeko taldean. Eskolara itzuliko diren lehen egunean gomendatutako liburua eroan eta gelako beste lagun batekin trukatu.
- **Deskribapen testuak**
  - **EGIN NIRE MARRAZKI BERA!** Jaso duzu irakasleak bideratutako irudia? Ausartuko zara zure ikaskide bati audio batean zure marrazkia ahalik eta zehatzen deskribatzen? Saiatu detaile guztiak kontuan izaten eta azalpen garbi bat ematen. Hurrengo egunetan zure ikaskide batek audioa entzungo du eta irudia izan gabe ahalik eta berdinen egiten saiatu beharko da, beraz saiatu lasai eta garbi hitz egiten.
 

OHARRA: Ikasle bakoitzari irudi bat bidaliko diogu. Denei desberdinak edo bikoteka desberdinak. Adinera egokitu irudiak eta kontuan izan ezin direla oso konplexuak izan, marrazki bidez egiteko modukoak izan daitezela eta haiek egiteko deskribapen mailara egokituak. Irudi geometrikoak, animaliak, lantzen ari zareten gairen bati lotutakoak...

- NOLAKOA DA ZURE ETXEA? Egun asko daramatzazu etxean sartuta lagunak ikusi gabe, halako batean telefono mugikorrean gelako lagun batzuekin talde bat osatu eta bideokonferentzia bat egin duzue (Whatsapp bidez, Skype...), lehenengo aldia da zure lagunekin modu horretan berba egiten duzula. Mugikorra erabilia taldeko lagunei deskribatuko diezu zure etxea (zein den zure gela, zure neba-arrebarena, egongela...) zelakoa den. Horretarako, etxeari "bisita gidatu" bat egin eta mugikorrarekin grabatu behar duzue pantailan agertzen diren elementu nagusiak (gelak, altzariak, jostailuak...)deskribatuz.